ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2022ko urtarrilaren 12a, asteazkena • 5 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AUDIKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2021eko bigarren seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Audikan, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2021eko bigarren seihilekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Audikako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek erroldan jasotako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiteko funtzioa betetzen du, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu ondorengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2022ko otsailaren 10ean hasi eta martxoaren 10ean bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2022ko martxoaren 10ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Audikako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratuta dagoen finantza erakundeen kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarguarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Audika, 2022ko urtarrilaren 4a

Lehendakaria
AMALIA MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ FERNÁNDEZ DE BETOÑO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.01.12 06:46:53 Z